



2009KO IRAILAREN 24KO
OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta bederatziko irailaren hogeita lauan, iluntzeko zazpietan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Patxi Albi-su Estensoro Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzarraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Felix Urkola Iriarte, Amagoia Naldaiz Mingo, Xanet Barreras Jauregi, M^a Lourdes Garmendia Guerra, Xabier Arrasate Aierbe, Inazio Estensoro Eskisabel, Inazio Barandiaran Aldasoro, Iñaki Saldaña Herrero eta Javier Moreno González de Lara.

Aktan adieraziko da Juan Manuel Serna Portugal, Ángel Hernández Marzal eta Ricardo Crespo Rubio zinegotziak bertaratzen direneko unea.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2009ko uztailaren 30ean egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

Une honetan bertaratzen dira Juan Manuel Serna Portugal, Ángel Hernández Marzal eta Ricardo Crespo Rubio zinegotziak.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatetzako Ebazpenen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

III.- KANPANDEGI-AMEBI-MEANDRO GUNeko HIRIGINTZA HITZARMENA.-

2009ko uztailaren 9ko Alkatetzaren Ebazpen bidez, eta Autonomia Erkidegoko Legebiltzarrak ekainaren 30ean onartutako 2/2006 Legean, Lurzoru eta Hirigintzari buruzkoa, 7. Xedapen Gehigarriaren 8. paragrafoan xedatzen denaren arabera, Lazkaoko Udal eta Goierri Beheko Industrialdea S.A.ren artean izenpetu beharreko Hitzarmena 20 eguneko denboraldian jendeaurreko erakusketan jartzea ebatzi zen.

Aipatu hitzarmena Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 21H.J.A. "Kanpandegi-Amebi-Meandroa" osatzen duten lursailen ingurukoa da.

Iragarkia 2009ko uztailaren 17ko 133 zbk.dun Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen eta Udaletxeko iragarki ohelean. 20 eguneko denboraldi horretan ez da inolako alegaziorik aurkeztu.

...///...

Hitzarmen hau 2009ko irailaren 22an izenpetu da, Goierri Beheko Industrialdea, S.A. eta Lazkaoko Udalaren artean.

Guzti hau honela izanik, eta hirigintza batzorde informatzailearen proposamenez, Udal Osoko Bilkurak, aho batez, honako akordio hau hartzen du:

Arau Subsidiarioetako 21 H.J.A. "Kanpandegi-Amebi-Meandroa" osatzen duten lursailen inguruko hirigintza hitzarmena, 2009ko irailaren 22an Goierri Beheko Industrialdea, S.A. eta Lazkaoko Udalak izenpetutakoa eta bere espedientean dagoena, onartzea.

Hitzarmen honen zehaztapen nagusiak honako hauek dira:

ESTIPULAZIOAK

Lehenengoa.- Dokumentu hau, ekainaren 30eko Eusko Legebiltzarraren 2/2006 Legearen xedapen gehigarrietako zazpigarrenean ezarritakoaren arabera, eta berarekin lortu nahi den xedea kontuan hartuta, "Kanpandegi-Amebi-Meandro" 21 Hirigintzako Esku-hartze Eremuaren kudeaketa-baldintzak eta ezaugarriak arautuz, esandako legean "Hirigintza-egikaritzeko hitzarmena" deitzen direnetan sar daiteke.

Bigarrena.- Hitzarmen honen xedea LAZKAOKO Udalaren eta GOIERRI BEHEKO INDUSTRIALDEA sozietatearen arteko harremanak arautzea da, Lazkaoko Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetan jasota dagoen "Kanpandegi-Amebi-Meandro" 21 Hirigintzako Esku-hartze Eremua osorik garatzeko eta hirigintza-kudeaketa gauzatzeko. Eremu horretako lursailen kalifikazioaren eta jardueraren xedea bertan interes publikoko eta sustapeneko jarduera ekonomikoak kokatzea da, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 16.2 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Bertaratutakoen izaera eta nortasuna, eta hitzarmen honen interpretazioa eta aplikazioa kontuan hartuta, hitzarmenaren xede den jarduerak interes publikoa eta orokorra du.

Hirugarrena.- Aipatutako eremuan jarduteko tramitatu eta onetsi behar diren kudeaketa eta antolamendu-tresnei dagokienez, Lazkaoko Udalak, bere eskumenen esparruan, honako eginbehar hauek hartu ditu bere gain:

a.- Berehala burutzea hitzarmen honen xede den eremuko lursailak prozesu urbanizatzailean sartzeko ezinbesteko hirigintza-tresnak onesteko administrazio-tramiteak.

b.- Hitzarmen hau garatzean sor daitezkeen espedienteak dinamizatu eta osatzeko beharrezko diren jarduerak burutzea, proiektuak, idatziak edo dokumentuak aurkezteak eta baldintzak betetzea.

c.- Lanak ahalik eta lasterren hasteko beharrezko diren plangintza-, kudeaketa- edo hirigintza-tresna guztiak behin betiko onestea udalean.

d.- Antolamendurako tresnek kasu bakoitzean ezartzen dituzten hitzarmen-, lankidetzak- edo desjabetze-espedienteak azkar eta prozeduraren arabera tramitatzea.

...///...



...///...

e.- Desjabetze bidezko jarduketan ezohiko egoerak aldi berean gertatu direla ulertuko da, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 182. artikuluan aurreikusitako lizentzia emate aldera.

f.- Goierri Beheko Industrialdea sozietateak lankidetzan jardungo du Lazkaoko Udala-ekin, eta hitzarmen honen aplikazioak sor ditzakeen zalantzak aztertu eta ebazteko eta komunikatzeko bide azkarra ezarriko du. Era berean, industrialdeen kudeaketan eta tramitazioan urteetan lortutako esperientziaren bidez ikasitakoa helaraziko du.

Laugarrena.- Eremua garatzeko jarduketa-sistema ezartzean honako hauek izango dira kontuan: plangintzaren xedeak ahalik eta ongien betetzea, epeak, baliabide ekonomiko eta finantzarioak eta kudeaketa-ahalmena. Beti kontuan hartuko da GOIERRI BEHEKO INDUSTRIALDEA sozietatearen iritzia.

Bosgarrena.- GOIERRI BEHEKO INDUSTRIALDEA, S.A.-k, eta Lazkaoko Udalak, interes publikoak eskualdean eskatzen duen jarduera ekonomikoa ezartzea lortze aldera, eta, batez ere, lurzorua eskuratzeari dagokionez, honako hau adostu dute:

1) 21 Hirigintzako Esku-hartze Eremuan eskuratu behar den lurzoria eskuratzeari Sozietate Publikoa arduratuko dela, hasiera batean gutxi gorabehera **berrogeita hamazazpi mila metro koadrotan (57.000.-m²)** finkatu dena.

2) Lursailik gehienak Kanpandegi izeneko inguruan erostea aurreikusten denez, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 44.3 artikuluan ezarritakoa aplikatuz, sortutako aprobetxamenduak ere Kanpandegin kokatuko dituela Birpartzelatze Proiektuak.

3) Kudeaketa errazteko eta behar bezain azkar egiteko, Sozietate Publikoak bere gain hartuko duela hasiera batean behar diren hirigintzako tresna guztiak (Zatiko Plana, Urbanizatzeko Jarduketa Programa, Urbanizatzeko Proiektua, Birpartzelatze Proiektua, eta abar) aztertu, burutu eta idazteak eragindako gastuen aurrerapena.

4) Sozietate Publikoak egindako azterlanek aholkatzen dutenez sozietateak esku hartu behar duela 35.000.00 m²-ko lursail-ekarpenetik sor litezkeen aprobetxamenduen sustapenean, eta horrek, eremu horretarako Lazkaoko Arau Subsidiarioetan aurreikusitako zonako eraikigarritasunaren arabera, industria pabiloiko 11.725 m²/t inguruko gutxi gorabeherako eraikigarritasuna inplikatzeko du, Lazkaoko Udalak hitzeman du Goierri Beheko Industrialdea, S.A.-k eskuratutako azaleraren, zehatz-mehatz 35.000,00 m²-ak gainditzen dituenaren, zati batean interesa duten eragile ekonomiko publikoak edo pribatuak bilatzen saiatuko dela, eta Sozietate Publikoak eraikigarritasuna garatuko duela agindu du. Ondorioz, Udalak eremuaren urbanizazio-lanak moldatzeko eta egokitzeko baliabideak antolatuko ditu adierazitako premisekin bat etorritik. Lanak, beraz, Goierri Beheko Industrialdea S.A.-k sustatuko ez dituen gainerako 22.000,00 m²-en eraikuntza-eskubideak eskuratzeko eta garatzeko konpromisoa hartzen duten eragileak daudenean hasiko dira.

Seigarrena.- Kontuan hartuta lehenengo estipulazioan aipatzen den jarduketaren xedea; jarduketak duen ageriko interes publiko eta soziala; GOIERRI BEHEKO INDUSTRIALDEA sozietatearen akziodunen izaera eta osaketa erabat publikoa, hitzarmen honen

...///...

...///...

eraginetarako Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Nagusiaren bitarteko erakunde gisa jarduten duena; eragiketen emaitzan ez dagoela irabazi asmorik edo xede espekulati-borik; eta lurzorua eskuratzeko aurreikusitako prezioaren nahiz GOIERRI BEHEKO INDUSTRIALDEA sozietateak aurre egin beharreko urbanizazio-gastuen eragin esanguratsua, bi aldeek itundu eta adostu dute, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 118.a) artikuluan ezarritakoaren arabera, GOIERRI BEHEKO INDUSTRIALDEA sozietateak eremuan azkenik izango duen partaidetza-mailagatik egokituko zaion aprobe-txamendu irabazi-asmodunaren % 15, Udalari laga behar zaiona eta Lurzoruaren Udal On-darean sartuko dena Birpartzelatze Proiektua behin betiko onesten denean, GOIERRI BEHEKO INDUSTRIALDEA sozietateari lagako zaiola adierazitako xede publikoak lortu eta gauzatzeko.

Zazpigarrena.- LAZKAOKO Udalak jakin badaki aipatutako eremuan GOIERRI BEHEKO INDUSTRIALDEAK ahalegin tekniko eta ekonomiko handia egin behar duela lurzoru nahikoa eskaini ahal izateko enpresei, bai bertan koka daitezen, bai jarduerarekin jarraitu ahal izan dezaten. Era berean, GOIERRI BEHEKO INDUSTRIALDEAK jakin badaki ahalegin ekonomiko eta administratibo handia egin behar duela Lazkaoko Udalak garatu nahi duen industria-eremua bultzatu eta sustatzeko.

Bi aldeak aurreko paragrafoan adierazitakoaren jakitun daude. Era berean, jakin badakite jarduteko orduan elkarrengan konfiantza izan behar dutela eta lankidetzan eta koordinatuta jardun behar dutela, eta honako hau erabakitzen dute, beraz, libreki: batak besteari zabarkeriagatik, geldotasunagatik, ezjakintasunagatik edo hitzartutakoa haustea-gatik kalte ekonomikoak edo bestelakoak eraginez gero, ordaindu egin beharko dizkiotela, eta, kaltetuak, egoki iritziz gero, epaitegietara jo ahal izango duela beste jarduera edo as-mo batzuk eskatu edo gauzatzeko.

Zortzigarrena.- Aho batez interpretatzen ez diren hitzarmenaren edukiak bere izaera eta xedearen arabera eta ase nahi den interes publikoarekin bat etorrira interpretatuko dira.

IV.- HAURTZAINDEGI BERRIAREN ERABILERA SAN BENITO IKASTOLARI EMATEA.-

Udal honek Euskadi Enparantza 2an, San Prudentzio Ikastetxea eraikinaren ondoan, eraiki berri duen eraikinaren helburua haurreskola izatea duenez eta San Benito Ikastola izanik Lazkaon haurren hezkuntza arautua ematen duen ikastetxe bakarra eta gainera eraikin honen eraikuntzaren finantzaketan lautik bateko proportzioan parte hartu duela kontutan izanda, haurreskola eraikin honen erabilera San Benito Ikastolari ematea proposatzen da, horretarako beharrezko den espedienteari hasiera emanez.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du beraiek abstenitu egingo direla, eta Lazkaon hezkuntza gaiaren inguruan beraiek duten iritzia jakina dela, eta emate hau beraiek alde ez dauden hezkuntza eredu baten aldeko beste apustu bat dela, zeren beraiek herri eskolaren aldekoak direla eta ez kooperatiba pribatuaren aldekoarenak.

Saldaña zinegotziak (Alternatiba) esaten du beraiek ere herri eskolaren alde dau-dela gauza guztien gaintik eta Lazkaon gertatu zena jakin da alperrikakoa da atzera begi-ratzea eta etorkizunari begiratu behar zaiola eta gaur egun haurreskola eraikin berri bat daukagula, behar bezala ekipatuta eta herri honetako umeak pozik dihoazte, eta hezkun-

...///...



...///...

tza eredia herri eskolak duen bera da, eta hezkuntza hau kooperatiba baten bidez ematen da, eta arazoa da hemen herri gune hori ez dugula, herri gune hori izateko aukera galdu egin zelako eta hori horrela egonik egin behar duguna da daukagun horretan aurrea egin, emate hori egin eta elkarrekin lan egin guztia herriaren onerako izan dadin.

Gaia eztabaidatu ondoren eta hirigintza batzordearen proposamenez, Osoko Bilkurak, aldeko 10 botu (EAJ, Alternatiba, PP), aurkako boturik gabe eta 3 abastentziaz (PSE-EE), eta beraz legezko gehiengo osoarekin, honako akordioak hartzen ditu:

- 1.- Euskadi Enparantza 2an, San prudentzio Ikastetxea eraikinaren ondoan, kokatutako haurreskola eraikinaren erabilera San Benito Ikastolari emateko espedienteak hastea.
- 2.- Erabilera emate hau jendeaurrean jartzea iragarkia Gipuzkoako Aldizakarian argitaratuz.

V.- HAURTZAINDEGIA ERAIKITZEKO ERAIKUNTZA LANEN 9. OBRA EGIAZTAGIRIA.-

San Prudentzio Ikastetxearen aldamenean eraikitzen ari den Haurtzaindegia eraikuntza lanen obra zuzendaritza daramaten udal arkitektoek lanen 9. obra-egiaztagiria luzatu dute. Bederatzigarren obra-egiaztagiri honen zenbatekoa EHUN ETA HOGEITA ZORTZI MILA ZORTZIEHUN ETA HOGEITA ZORTZI EURO eta BERROGEITA HAMABI ZENTIMOTakoa (128.828,52 €) da. Lan hauek Miguel Imaz, S.A. enpresa ari da burutzen.

Udal teknikariak obra-egiaztagiri hau aztertu eta bere oniritzia eman dio.

Honen aurrean, Osoko Bilkurak, aho batez, Haurtzaindegia eraikuntza lanen bederatzigarren obra-egiaztagiria onartzea erabakitzen du.

VI.- ESTALI GABEKO IGERILEKUAK ERAIKITZEKO ERAIKUNTZA LANEN 3. OBRA EGIAZTAGIRIA.-

Joxemiel Barandiaran Udal Kiroldegiaren aldamenean eraikitzen ari diren Estali Gabeko Igerilekuak lanen obra zuzendaritza daramaten LKS Ingenieria, S. Coop.ko Javier de la Fuente Carazo arkitektoa eta Nerea Mujika Estensoro arkitekto teknikoek lanen 3. obra-egiaztagiria luzatu dute. Hirugarren obra egiaztagiriaren zenbatekoa EHUN ETA HOGEITA HIRU MILA BOSTEHUN ETA HOGEITA BAT EURO eta BERROGEITA LAU ZENTIMOTakoa (123.521,44 €) da. Lan hauek Altuna y Uria, S.A. enpresa ari da burutzen.

Udal teknikariak obra-egiaztagiri hau aztertu eta bere oniritzia eman dio.

Honen aurrean, Osoko Bilkurak, aho batez, Estali Gabeko Igerilekuen eraikuntza lanen hirugarren obra-egiaztagiria onartzea erabakitzen du.

VII.- ENIRIO-ARALARKO BUELOAREN BERRESKURAKETA.-

Alkateak esaten du Enirio-Aralarko bueloaren berreskuraketaren inguruan, buelo honen eskubideen jabeak diren gehienekin egon dela, bakarren batekin harremanetan jartzea lortu ez badu ere, eta adostasunera iritsi dela buelo hau Lazkaoko Udalak berreskuratzeke. Adostutako prezioa HOGEITA HAMASEI MILA (36.000 €) EUROkoa da.

...///...

...///...

Enirio-Aralarko bueloa esku batean jartzeari buruz aurreko osoko bilkuran hartutako erabakiaren baitan, hogeita hamahiru mila (33.000 €) euro Gipuzkoako Foru Aldundiak jarriko lituzke eta Lazkaoko Udalak jarri beharrekoa hiru mila (3.000 €) euro izango litza-ke.

Gaia aztertu ondoren, osoko Bilkurak, aho batez, Enirio-Aralarko bueloa berresku-
ratzearen inguruan honako akordioak hartzen ditu:

- 1.- Berreskuratze honengatik hogeita hamasei mila (36.000 €) euro ordaintzea.
- 2.- Berreskuratze hau gauzatzeko behar diren egintzak egin eta dokumentuak izenpetzeko alkatea ahalmentzea.

VIII.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Jendartetik lagun batek Kanpandegi-Amebi-Meandroa gunearen garapenaren Meandroan ezer aldatu al denari buruz galdera egiten da eta alkateak erantzuten dio esa-
nez ezetz, ez dela ezer aldatu eta lehen bezalaxe dagoela.

Jendartetik beste lagun bat Serna zinegotziari zuzentzen zaio ikastolaren gaian izan duen jarrerari buruzko hainbat adierazpen eginez eta Serna zinegotziak adierazpen hauen aurrean erantzun egiten die.

Aurreko adierazpen horien tartean Lurdes Garmendia Guerra zinegotziak bilkura utzi egiten du.

IX.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zazpi terdiak direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudala-rik.

